

## Udaberriko oporrak

**Datorren ostiralean, martxoak 31**, eguerdiko **12:30ean** HH (3-6), LH eta DBHko ikasleek **udaberriko oporrak** hasiko dituzte **apirilak 16 bitarte**; **Haur Eskolakoek** ere egun berean hasiko dituzte beren oporrak.



## Jangela martxoaren 31n

Martxoaren 31ko eguerdian eskolak amaitzen direnez, jangelako bazkaldarrak **etxera bakarrik** joatea nahi izanez gero, **baimena** [usurbil@ikastola.eus](mailto:usurbil@ikastola.eus) helbidera idatziz eman beharko da. Norbaitek etorri behar badu haurraren bila, 13:30etik 14:30era bitarte etor daiteke.

Bestalde, bazkaldarrei gogorarazi nahi zaie, martxoaren 31n **jangelako zerbitzua erabili behar ez badute**, ahalik eta azkarren [usurbil@ikastola.eus](mailto:usurbil@ikastola.eus) helbidera idatziz **jakinarazi** behar dutela.

Eskerrik asko!



## Udako aisialdi-eskaintza

Aurten ere Zirimolak, Ikastolen Elkarteko aisialdi taldeak, prestatu du [udako aisialdi-eskaintza](#). Bertan, berrikuntza ugari ikusiko dituzue, tartean egitasmo bat gehitu zaio eskaintzari. Modu horretan, Euskal Herriko ertz guztietako haurrek uda Zirimolarekin batera gozatzeko aukera izan dezaten. [Informazio gehiago...](#)



## "Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura" kanpaina

ERRIGORA ekimenak, auzolanean, Nafarroa hegoaldeko nekazaritza indartu asmo du, horretarako, eremu horretakoak propio diren produktuak Euskal Herriko plazan jarritz. Aldi berean, "zona no vascofona" izendatutako euskalgintzari ekarpentxo egin nahian, bultzada ekonomikoa ematea ere badu helburu. Honela, produktu ezberdinak daude salmentan.



**Informazio gehiago:** [errigora.eus](http://errigora.eus)

**Aukeran izango diren produktuak:** oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak.

**Epea:** martxoak 9-29.

**Eskaerak:** online [errigora.eus](http://errigora.eus) bidez edo NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan.

**Banaketa:** maiatzaren 12an eta 13an Udarregi ikastolan.

**Ordainketa:** online eginez gero bi zatitan edo dena batera ordaintzeko aukera. Bestela, eskudirutan, produktuak jasotzerakoan.

# HAUR HEZKUNTZA

## Paperezko poltsa

Gogorarazi nahi dizuegu zuen seme-alabek hiruhilabete honetan egindako lanak etxera eramateko gabonen aurretik eramandako paperezko poltsa ekarri behar dutela.



## Gela-bilera!

Martxoaren 29an, asteazkena, 17:30ean, **0-1 urteko haurren** eta **2-3 urteko haurren** gela-bilerak izango dira (**Txerriak eta Tximeletak**).

Bilera modu lasaiagoan egite aldera, haurrik gabe etortzea gomendatzen dizuegu.



# LEHEN HEZKUNTZA

## Irteera LH1

1. mailako ikasle eta irakasleak **Mendukilora** joango gara egun pasa datorren asteazkenean, **martxoak 29**. Berokia eta oinetako egokiak eramatea beharrezkoa da, kobazulo barrura sartuko baikara. Arratsaldeko 16:30ean itzuliko gara.



## Arropa galdua

Ageri aldeko sarreran dagoen arropa galduen txokoa beteta dago. Beraz, martxoaren 31n bertan dagoen arropa Caritaseko edukiontzira eramango dugu.



## Pantailen erabilera egokiaren inguruko lanketa

Hitz Aho guraso eskolak, Udarregi ikastolarekin eta Usurbilgo udalarekin batera, Miren Ros gonbidatu du, pantailen erabilera egokiaren inguruan hausnartzera.

Gogoratu, datorren astean ikasleekin egingo dituela bi saio:

- **LH5eko** ikasleen formakuntza: **martxoak 27**
- **LH6ko** ikasleen formakuntza: **martxoak 28**



## Irakurketa-solasaldia

Usurbilgo Udal Liburutegiak **IRAKURKETA-SOLASADI** ekintza berri bat antolatu du, oraingoan **LH6ko gaztetxoentzat**; saioa **MAIATZAren 10ean izango da, asteazkena, arratsaldeko 6etan, Liburutegian bertan. Mintzagai izango dugun liburua, Miren Agur Meaberen BIHOTZAK DUN-DUN** izango da, eta Yolanda Arrieta izango dugu irakurketa-partekatze honetan bidelagun. **Solasaldian parte hartu nahi duenak**, Liburutegian izena-eman behar du, eta nola ez, liburua jaso irakurtzeko!



# DBH

## Irteera

Martxoaren 30ean, osteguna, DBH1eko ikasleekin **Arditurriko** (Oartzun) meategiak ikustera joango gara Bio/Geo arloaren baitan. Irteeraren kostua **11,35 €** izango da; autobusa: 8 € eta sarrera: 3,35 €.

**Kobrantza datorren ostiralean**, martxoak 31, egingo da.



## DBH 4ko familiei oharra

Jakinarazten da 2023/24 ikasturterako Batxilergora sartzeko aurre matrikula epea **martxoaren 27tik apirilaren 21era** izango dela.



## Hezkidetza-programa

Datorren astean, **HEZKIDETZA dela eta, DBH1., 2. eta 4. mailan egindako lanaren berri eman eta gurasoentzat ikastarotxo bat eskainiko da.**

- \* Bilera-eguna: **martxoak 29, asteazkena**
- \* Bilera ordua: **17:00etan**
- \* Lekua: **DBHko eraikina**

